



**ARANGURENGO
IBARRA
2021**

ARANGUREN IBARREKO OLENTZERORAKO KARTELEN LEHIAKETA - 2021

Beste urte batez, 2021eko abenduaren 24ean, Olentzero Aranguren Ibarrera etorriko da. Etorrera horren berri emateko, Aranguren Ibarreko Euskara Zerbitzuak eta Mutiloako Irulegi eta San Pedro IPEk, Irulegi Euskara Taldearekin batera kartelen lehiaketa deialdia egin dute.

OINARRIAK:

1.- Parte hartzaileak: Bi ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 1-6. mailako gela guztiek parte hartu ahaliko dute, irakasle batek gidatuta.

2.- Mailak: lehiaketa bi mailatan banatzen da:

1. Lehen Hezkuntzako 1. eta 3. maila bitarteko gelak.
2. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako gelak.

3.- Gaia Olentzeroarena izango da, **estiloa** eta **teknika** berriz, **librea**, eta kolorez egin daiteke. Lanek originalak eta argitaragabeak izan beharko dute, eta ez dira inola ere beste lehiaketatan aurkeztuak edo beste artistaren baten lan baten kopia edo plagioa izango, ezta beste edozein formatan publikatutako kartel, margo, eta abarrena ere.

4.- Gela bakoitzak gehienez 5 lan aurkeztu ahaliko ditu, beti 2021eko Olentzeroari buruzkoak. Lan bakoitzean honako **idazkuna** agertu beharko da, taldeak nahi duen eran:

Olentzero 2021
24 de diciembre
Olentzero
2021eko abenduaren 24

5.- Aurkezpena: Lanak lema batekin aurkeztuko dira. Beste gutun-azal itxi batean gelaren datuak sartuko dira: ikastetxea, maila, taldea, irakaslearen izena eta eta parte hartzeko lema. Gutun-azalaren kanpoko aldean, soilik lema agertuko da, letra larriz, parte hartzailea nor den jakitea ahalbidetzen duen inolako aipamenik gabe. Taldea identifikatu dezakeenik duen lanik ez da onartuko.

6.- Lanak **aurkezteko epea abenduaren 10an** bukatuko da, ostirala, 14:00etan. Lanak astelehenetik ostiralera aurkeztu ahaliko dira, betiko ordutegietan, honako lekuetan:

· **San Pedro I.P.ko atezaintza** (*Mutiloa*).

· **Irulegi I.P.ko atezaintza** (*Mutiloa*).

7.- Epaimahaia Arangurengo Ibarreko Udaleko Euskara Zerbitzuak, Irulegi elkarteko kide batek eta Mutiloako San Pedro eta Irulegi IPEk osatua egongo da. Erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiak honakoak hartuko ditu kontuan: kalitatea, teknika, originaltasuna, sormena, eragin bisuala, Olentzeroaren irudia, eta abar.

8.- Sariak: 100 € ikasmaterialean.

9.- 1. Kategorian aukeratutako lana 2021eko **Mutiloako Olentzeroren** etorrera iragartzeko kartel gisa argitaratuko da.

10.- 2. Kategorian aukeratutako lana 2021eko **Aranguren, Labiano eta Taxoaren** Olentzeroren etorrera iragartzeko kartel gisa argitaratuko da.

11.- Aurkeztutako lan guztiekin **Erakusketa** egingen da **Aranguren Ibarreko Kultur Etxean**, abenduaren 15etik 30era.

12.- Lanak Aranguren Ibarreko Euskara Zerbitzuaren esku geratuko dira.

13.- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatuko du. Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen edozein egoera, antolakuntzak konponduko du.

Ohar garrantzitsua:

Kartela egiteko orduan sor daitezkeen egoera praktikoengatik, **lanak era bertikalean aurkeztuko** dira. Aholkatzen den tamaina DINA-4koa da, edo proportzio hori gordetzen duena.

*** Antolatzaileak:**

- **Aranguren Ibarreko Udaleko Euskara Zerbitzua.**
- **Irulegi Euskara Taldea**
- **Mutiloako Irulegi I.P.**
- **Mutiloako San Pedro I.P.**



• Babeslea:

- **Aranguren Ibarreko Udala.**